

# Andra Mari

## ONDIZKO BASELIZA

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO

# Andra Mari

## ERMITA DE ONDIZ

Andra Mari baseliza Ondiz auzoko muinoetako batean kokatuta dago, Erremedioetako Andra Mari izenpean; herritarrek *Ondizko Andra Mari* deitzen diote. Baselizaren jatorria Erdi Arokoa den arren, oraingo eraikina XVI. mendekoa da; eraikitze estiloa gotikoa da, Errenazimentura bitarteko trantsiziokoa, eta erreformak egin zizkioten XVIII. eta XIX. mendeetan. Han goitik lurralde zabala beha daitekeenez, gerra karlistetan gotorleku bat erantsi zioten hegoaldean (haren aztarnak batzuk han daude oraindik, hala nola adreiluzko gezileihoak).

DESKRIBAPENA
22,90 x 8,20 metroko oinplano laukizuzena du, bi isurkiko estalkiarekin; iparraldeko arkupearen gainekoa baxuagoa da. Hormak bistako harlangaitzez eginak badira ere, izkina-harriak eta kanpai-horma (kanpai batekoa) harlanduz eratuak dira. Jatorrizko sarrera eraikinaren hegoaldean zegoen: puntadun arkuko atea dago han, hormaren pisuari eusten dioten lau kontrahormek erdi ezkutatuta, eta arku apalduko beste bat (gaur egun itsutuak); leihoetan badira arku zuzenekoak, arku karpaneleko bat eta bi gezileiho. Gaur egungo sarrera nagusia iparraldean dagoen puntu erdiko arkudun atea da, eta leihoak arku karpaneleko bat, gezileiho bat eta arku zorrotzeko bat dira. Itun Berriaren aldean arkupea dago, eta Epistola aldean zegoen antzinakoaren ordez ezarri zuten; erori egin zen. 1979an zaharberritu egin zuten. Barnean, zurezko zorua du, eta, irudi ugarien artean, nabarmentzekoa da Andre Maria eta Haurra irudikatzen dituen Errenazimentu garaiko zurezko tailua.

ERABILERA
San Joan Bataiatzailearen parrokiari atxikia izanik, Ondizen meza izaten da igandetan, eta, aldian behin, ezkontzak ospatzeko ere erabiltzen da. Irailaren 8an eta 9an Andra Mari eta Andramaritxu jaiak ospatzen dira, abestutako meza batekin eta herri erromeriarekin; San Joanetako festekin batera, horiek izaten dira jairik ospetsuenak eta gogokoenak. Hasiera batean, ospakizun horretan prozesioan joaten zen jendea San Joan elizatik, banderarekin eta musikarekin, Ondizko baselizara iritsi, eta bertan egiten zen meza nagusia. Ondoren, asto lasterketak, zaku lasterketak eta aurreskulari lehiaketak antolatzen zituzten. Arratsaldean erromeria izaten zen. 1865. urteaz geroztik, hurrengo igandean errepikapeneko meza izaten da, eta beste erromeria bat ere bai; XX. mendearen hasieratik aurreskulari emakumezko eta gizonezkoen lehiaketa izaten da, eta arratsaldean erromeria berriro. Joan den mendeko 30eko urteez geroztik, maiatzaren 15ean San Isidro Nekazaria ospatzen da. Gaur egun, hango jaietan Bizkaiko erara prestatutako bakailao lehiaketa eta gizon nahiz emakumeen Bizkaiko aurresku txapelketa egiten jarraitzen dute.

**ITURRIAK** GURUTZI ARREGIREN "ERMITAS DE BIZKAIA I-II-III" ETA "LEIOA A TRAVÉS DE LA HISTORIA"
**IRUDIAK** JAVIER IBARRA ZUBIA







La ermita de Andra Mari está enclavada en las colinas del barrio de Ondiz, bajo la advocación de Nuestra Señora de los Remedios, popularmente *Ondizko Andra Mari*. Esta ermita es de origen medieval, aunque el edificio actual es del siglo XVI, estando construida en estilo gótico de transición al renacimiento, con reformas posteriores de los siglos XVIII y XIX. Desde ella se divisa un territorio extenso y por eso, durante las guerras carlistas, se le adosó un fortín en la parte sur (algunos restos de éste, como las aspilleras de ladrillo, aún se conservan).

DESCRIPCIÓN
Su planta es rectangular, de 22,90 x 8,20 m con cubierta a dos aguas, con una cubierta más baja sobre el pórtico del lado norte. Los muros son de mampostería vista, pero los esquineros y la espadaña (de un vano, con campana) son de sillería. La entrada original estaba en la cara sur del edificio, donde existe una puerta ojival semioculta por los cuatro contrafuertes que soportan el peso del muro, y otra de arco escarzano (actualmente cegadas), conservando ventanas adinteladas, otra en arco carpanel y dos aspilleras. La actual entrada principal es una puerta de arco de medio punto en el lado norte, donde también tiene una ventana en arco carpanel, una aspillera y una ventana en arco apuntado. En el lado del Evangelio hay un pórtico, que sustituyó a otro antiguo que se localizaba en el lado de la Epístola y que está derrumbado. En 1979 fue restaurada. En su interior el pavimento es de madera y destaca, entre numerosas imágenes, la talla de madera que representa a la Virgen y al Niño que data de la época renacentista.

USO
Adscrita a la parroquia de San Juan Bautista, en Ondiz se celebra una misa dominical y, en ocasiones, también es usada para celebrar bodas. Se celebra la festividad de Andra Mari y Andramaritxu, el 8 y 9 de septiembre, con una misa cantada y romería popular siendo, junto con las de San Juan, unas de las fiestas más famosas y esperadas. En los inicios de esta celebración se salía en procesión con bandera y música desde la iglesia de San Juan, llegando a la ermita de Ondiz donde se celebraba misa solemne. A continuación se organizaban carreras de burros, *carreras de sacos* y *concursos de aurreskularis*. Por la tarde había romería. Al domingo siguiente, desde 1865, se celebra misa de repetición y otra romería, habiendo desde inicios del XX un concurso de *aurreskus* de hombres y mujeres y, por la tarde, de nuevo romería. Se viene celebrando San Isidro Labrador el 15 de mayo desde los años 30 del siglo pasado. Hoy en día, durante las fiestas, se siguen celebrando el concurso de bacalao a la vizcaina y el campeonato de *aurresku* de Bizkaia para hombres y mujeres.

**FUENTES** "ERMITAS DE BIZKAIA I-II-III" DE GURUTZI ARREGI Y "LEIOA A TRAVÉS DE LA HISTORIA"
**ILUSTRACIONES** JAVIER IBARRA ZUBIA



**ANDRA MARI** (ONDIZ)




**HIRU ERMITAK IBILBIDEA**
EUSKAL KIROL ZALEAK ELKARTEAK, LEIOAKO UDALAREN LAGUNTZAREKIN, 15 KILOMETROKO IBILALDI BEREZI BAT ANTOLATZEN DU 2013AZ GEROZTIK, ETA ERMITA HAUEK BATZEN DITU: LEIOAKO UDALERRIKO BI ERMITAK, ONDIZ ETA SAN BARTOLOME, ETA SANTI MAMIKO ERMITA, ERANDIOKO UDALERRIAREN MUGAREN ONDOAN KOKATUA. AUKERA APARTA DA LEIOAKO ONDARE ARKITEKTONIKO ETA HISTORIKO-ARTISTIKOAREN ZATI BAT EZAGUTZEKO ETA UDALERRIKO ETA INGURUKO PAISAIA ONENEZ GOZATZEKO.

**MARCHA DE LAS TRES ERMITAS**
LA ASOCIACIÓN EUSKAL KIROL ZALEAK, CON LA AYUDA DEL AYUNTAMIENTO DE LEIOA, VIENE ORGANIZANDO DESDE 2013 UNA PECULIAR MARCHA DE 15 KM UNIENDO LAS DOS ERMITAS DEL TÉRMINO MUNICIPAL DE LEIOA, ONDIZ Y SAN BARTOLOMÉ, Y LA DE SANTI MAMI, ENCLAVADA JUNTO AL LÍMITE DEL TÉRMINO MUNICIPAL DE ERANDIO. UNA BUENA OPORTUNIDAD PARA CONOCER PARTE DEL PATRIMONIO ARQUITECTÓNICO E HISTÓRICO-ARTÍSTICO DE LEIOA Y DE DISFRUTAR DE LOS MEJORES PAISAJES DEL MUNICIPIO Y SU ENTORNO.



**SAN BARTOLOMÉ** (BASAIZ)



**SAN MAMÉS** (SANTI MAMI)